

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak esku hartuko du Yolanda Jaén Gómezen heriotzagatik Iruñeko Emakumearen Kontrako Indarkeriaren Epaitegiak aurrera eramán duen kausa penalean

Haren bikotea behin-behineko espetxealdian dago, komunikatua eta fidantzarik gabe, ustezko giza hilketa delituagatik

Asteazkena, 2018.eko urriak 31

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran erabaki du herri-akzioa gauzatzea Iruñeko Emakumearen Kontrako Indarkeriaren Epaitegiak aurrera eramán duen kausa penalean, haren bikotearen, Yolanda Jaén Gómezen, ustezko hilketa delituagatik. Jakina denez, Iruñeko etxebizitzako sutean jasan zituen zauri larrien ondorioz hil zen, urriaren 23an. Haren bikotea behin-behineko espetxealdian dago, komunikatua eta fidantzarik gabe.

Gobernuak Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuaren aholkulari juridikoko zerbitzuari dagozkion jarduketa prozesalak egiteko eskatu dio.

Gogoratu behar da Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko 14/2015 Foru Legeak ezartzen duela Foru Administrazioak zigor-prozeduretan bertaratzea erabaki dezakeela emakumeen kontrako indarkeria-kasurik larrienetan herri-akzioa gauzatzeko edo delituzko ekintzak haren heriotza eragiten badu.

Ildo horretatik, Nafarroako Gobernuak haren familia eta adiskideei elkartasuna eta laguntasuna erakutsi nahi die, eta, aldi berean, emakumeen bizitzaren, askatasunaren, duintasunaren eta hiritartasunaren kontrako indarkeria oro errotik kentzeko lanean jarraitzeko konpromisoa sendotu nahi du.